

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2009	R27/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Eskumeneko Administrazioa

Ebazpena: R 27/2011

Espedientea: 8/2009

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abenduaren 22an

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente zuelarik, eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekide, honako hau

## ERABAKI DU

1. ENTITATEAK (IFZ: NNNNNNN-LETRA) aurkeztutako gatazkari buruz. Estatuko Zerga Administrazioko Agentzia eta Bizkaiko Foru Aldundia dira eraginpeko administrazioak. Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da aipatutako gatazka, 8/2009 espediente-zenbakiarekin.

## I. AURREKARIAK

1. 2009ko uztailaren 13an Arbitraje Batzorde honetara 2009ko ekainaren 30eko data zuen idazki bat sartu zen. 1. ENTITATEAREN (IFZ: NNNNNNN-LETRA) –“entitatea” aurrerantzean- ordezkariak idatzi zuen eta aurrekari eta Zuzenbideko Oinarri batzuk adierazi zituen bertan. Azken horien artean, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen (EIAB) Araudiko 13.3 artikuluan xedatzen dena argudiatzen du legitimazio-titulu gisa.

Idazkia amaitzeko, honako hau eskatzen du: “Arbitraje Batzordeak Estatuko Zerga Administrazioaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sortutako gatazka konpontzeko prozedura hastea, hain zuzen ere, Ekonomia Itunaren 12/2002 Legearen 7.1.a) puntuan ezarritako konexio-puntua aplikatzean sortu da gatazka - lan-atxikipenak, urtarriletik irailera arteko aldiak, 2008 ekitaldia-, aipatutako lege-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2009	R27/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Eskumeneko Administrazioa

testuan eta Arbitraje Batzordearen Araudia onartzen duen 1760/2007 Errege Dekretuan ezartzen den moduan”.

2. 2010eko abenduren 20an onartu zuen Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidetzea.

3. Hauek dira, laburbilduta, entitateak aipatutako idazkian adierazitako aurrekariak:

- Entitateak, zerga-egoitza 1. UDALERRIAN duenak, lan-atxikipenen autolikidazio guztiak (urtarriletik irailera arteko aldiak, 2008 ekitaldia) aurkeztu zituen eta zegokion zerga-zorra ordaindu zuen Estatuko Zerga Administrazioko Agentzian (EZAA).

- Beranduago, langile jakin batzuen 2008ko ekitaldiko lan-errendimenduen gaineko atxikipenen autolikidazioak aurkezteko eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiak entitateari.

- 2008ko azaroaren 24an ordaindutako kopuruak Foru Aldundiari transferitzeko eskatu zion entitateak EZAAri. 2009ko maiatzaren 22ko ebazpen bidez, EZAAk bi langileri zegozkien eskaerak onartu eta gainerakoei zegozkienak atzera bota zituen.

- Entitateak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen aurreko ebazpenaren aurka, eta ebazpena eman gabe zegoen gatazkaren azalpen-idazkia aurkeztu zen unean.

- 2009ko maiatzaren 15ean Arbitraje Batzordearen aurrean prozedura hasteko eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak ofizios erantzun zion aurreko eskaerari, 2009ko ekainaren 9an, eta bertan jakinarazi zuenez, “Euskal Autonomia Erkidegoarekin egindako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiko 13.3. artikulua araberak - 2007ko abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bitartez onartu zen aipatutako araudia-, agertutako entitateak zuzenean abiarazi behar du gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean...”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2009	R27/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Eskumeneko Administrazioa

- 2009ko urtarrilaren 22an Bizkaiko Foru Aldundiak lan-atxikipenen (2008ko urtarriletik irailera arteko aldiak) behin-behineko likidazioa jakinarazi zion entitateari eta gauzatzeko utziko zela erabaki zen.

4. Arbitraje Batzordeak EIABren 13.3. artikulua jarraituz izapidetu zen gatazkaren planteamendua eta jakinaren gainean jarri ziren eragindako administrazioak, EIABren 15.1. artikuluan xedatzen denaren arabera. Alegazioak aurkeztu zituzten bai Bizkaiko Foru Aldundiak bai EZAAk.

5. Alegazioak izapidetzean, Bizkaiko Foru Aldundiak txosten bat bidali zuen Arbitraje Batzorde honetara, Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Politikako Zerbitzuburuaren ofizio baten bitartez. 2011ko urtarrilaren 24ko data zuen aipatutako txostenak eta Ikuskapenaren Koordinazio Zerbitzuen buruari zuzenduta zegoen. Dokumentu horretan adierazten diren aurrekariak eta Zuzenbideko Oinarriak kontuan hartuta, honako ondorio honetara iritsi daiteke:

"Adierazitakoa kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak aipatutako langileen atxikipenen ordainarazpenak egiteko eskumena duela aitortzeko eskatzen zaio Arbitraje Batzordeari, 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Ekonomia Itunaren 7.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, 2008ko ekitaldiko atxikipenengatik EZAAk oker sartutako kopurua Bizkaiko Foru Aldundiari transferitzeko eskatzen zaio".

6. Bestalde, EZAAk alegazio-idazki bat aurkeztu zuen 2011ko otsailaren 9ko datarekin (otsailaren 11n sartu zen). Idazkian adierazitako izatezko eta zuzenbideko oinarriak kontuan hartuta, gatazka hau ez onartzeko eskatzen zitzaion Arbitraje Batzordeari.

7. Espedientea ikusita, Bizkaiko Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen, Ikuskaritzak 2011ko maiatzaren 25ean egindako txosten baten bitartez. Aipatutako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2009	R27/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Eskumeneko Administrazioa

txostena ofizioz bidali zitzaion Arbitraje Batzorde honi 2011ko ekainaren 1ean. Aipatutako idazkian, alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak berretsi egiten ditu bere lehen alegazioak, eta, bestetik, aurkeztutako argudioetan oinarrituta, "zerga-obligaziodunak beharrezko legitimazio-baldintzak betetzen ez dituela-eta EZAAk egindako eskaera atzera bota" beharko litzatekeela azpimarratzen du.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka honen xedea, eragindako bi administrazioen artetik, EZAA eta Bizkaiko Foru Aldundia, entitateak langile jakin batzuei 2008ko ekitaldiko urtarriletik irailera arteko aldietan ordaindutako errendimenduen atxikipenen ordainarazpenak egiteko eskumeneko administrazioa nor den zehaztea da. Hala ere, alde aurretik EAZZk gatazka ez onartzeko aurkeztutako alegazioa aztertu behar da.

Alegazio horrek EIABren 13.3 artikulua du oinarrian. Horren arabera, zerga-obligaziodunak gatazka bat planteatu ahal izateko, gatazkak izaera negatiboa eduki behar du. Agindu horren arabera:

“Eskuduntzako administrazioerik erabakitzen ez bada eta aurreko atalean adierazitako hilabete bateko epea igarotzean bi administrazioetako batek gatazka Arbitraje Batzordean aurkezten ez badu, nahikoa izango da zerga-obligaziodunak hori horrela dela jakinaraztea Batzordeari (hurrengo hilabetearen barruan), gatazka automatikoki planteatuta geratzeko”.

EZAAREN arabera, gatazka hau ez da negatiboa, positiboa baizik, izan ere, bi administrazioek eskatu dute eztabaidan dagoen eskumena, beraz, zerga-obligaziodunak ez zuen legitimaziorik bere planteamendua egiteko. Gatazka positiboa bada, bide egokia EIABren 13. artikuluko 1. atalean adierazitakoa da, hau da, eskumena duen administrazioak eskumena ez duenari eskumena baliatzen uzteko eskatu behar dio eta azken horrek errekerimendua ez onartzea eta bere

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2009	R27/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Eskumeneko Administrazioa

eskumena berriaz edo isilbidez berrestea. EZAAREN iritziz, Bizkaiko Foru Aldundiak Estatu Ogasunean ordaindutako atxikipenen ordainarazpena egiteko eskumena zuela uste bazuen, EZAAREN eskumena baliatzen uzteko eskatu behar zuen, EIABK horretarako ezartzen dituen epeen barruan.

2. 2011ko maiatzaren 25eko alegazioei buruzko txostenean, Bizkaiko Foru Aldundiak ohar hauek egiten ditu EZAAREN eskatutako prozedura-eragozpenari buruz:

"Zerga-obligaziodunak Bizkaiko FAEAREN 2009/04/28 datako ezespen-ebazpena jaso zuen [aipatutako data jakinarazpenaren data da; ebazpenarena, berriz, 2009ko martxoaren 18a da, lehenago adierazi den moduan], Bizkaiko Foru Aldundiaren likidazioaren aurka aurkeztutako erreklamazioari dagokionez. Era berean, EZAAREN aurrean autolikidazioak zuzentzeko aurkeztutako berraztertze errekurtsoa atzera bota zen, Kataluniako EZAAREN Ordezkaritza Bereziaren 2009/04/01 akordio bidez [akordio hau 2007ko ekitaldiari dagokio; 2008koari dagokiona 2009ko maiatzaren 22an eman zen, lehenago esan den moduan]. Zerga-obligaziodunak ezezo administrazio-ebazpenen ondorioz duen egoera eskumengabetasun-deklarazio batek eragindakoa den berdina edo antzekoa da, eta egoera hori hartu beharko litzateke kontuan EIABREN 13.3 artikulua bidez gatazka automatikoki onartzeko.

Zerga-likidazioak negatiboak badira edo zerga-itzultzerik badago, zerga-obligaziodunak egindako okerreko diru-sarrerak direla-eta aurkeztutako errekurtsoak, erreklamazioak edo eskaerak ukatzeko administrazio-ebazpenak, eskumengabetasun-deklarazioen antzekotzat joko dira, Arbitraje Batzorderen Araudiaren 13.3. artikulua gatazkaren onarpen automatikorako eskatzen dituen baldintzak betetzeko. Aitzitik, Arbitraje Batzordearen arbitrajea eskuratzeko aukera ukatuko genieke zerga-obligaziodunei eta epaitegietara jo beharko lukete, derrigorrez, Administrazioen arteko eskumen-desadostasun baten ondorioz eragindako kalte bat konpontzeko. Nahikoa izango litzateke

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2009	R27/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikpenak. Eskumeneko Administrazioa

Administrazio baten jardute-eza zerga-obligaziodunen sarrera automatikoa eragozteko, eskumen-bikoiztasuna dela-eta ezezko egintzen ondorioz eragindako kalteen kasu askotan.

Aipatutako Arbitraje Batzordearen Araudiko 13.3. artikulua araber, hilabete bateko epea igarotzean, bi administrazioetako batek gatazka Arbitraje Batzordean aurkezten ez badu, nahikoa izango da zerga-obligaziodunak hori horrela dela jakinaraztea Batzordeari, gatazka automatikoki planteatuta geratzeko.

EZAak proposatzen duen interpretazio mugatzailearen araber, zerga-obligaziodunak ezingo zuen Batzordearen arbitrajera jo zerga-likidazioen bikoiztasuna gertatzen den kasu askotan eta, ondorioz, zerga-obligaziodunak epaitegietara jo beharko luke, eta horrelako egoerak saihestea da, hain zuzen ere, Ekonomia Itunaren baitan Arbitraje Batzordea sortzeko arrazoia”.

(jatorrizkoan azpimarratuta)

3. Ez gaude ados gatazka hau EIABren 13.3. artikuluan bidez “automatikoki” onartzeko Bizkaiko Foru Aldundiak azaldutako arrazoiekin. Aldundiak gatazka negatiboa dela frogatu nahi du eta, horretarako, eragindako administrazioen ezezko ebazpen bana alderatzen ditu: Bizkaiko FAEArena eta EZAaren Bartzelonako Ordezkaritza Bereziarena. Baina ezezko ebazpenak izanik ere, horrek ez du esan nahi eztabaidaren xede diren atxikpenak ordainarazteko eskumena ukatzen denik – horrela balitz, gatazka negatiboa izango litzateke–; aitzitik, aipatutako ebazpenek aurkatu diren egintzak egiaztatzen dituzte eta, ondorioz, ebazpen horiek emateko kontuan hartu zen eskumena berretsi egiten da.

Horrela, atxikipenen behin-behineko likidazioa egitean, Bizkaiko Foru Aldundiak horiek ordainarazteko eskumena duela baieztatzen du eta baieztapen hori berretsi

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2009	R27/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikpenak. Eskumeneko Administrazioa

egiten du, bere aurka jarritako berraztertze errekurtsa ezestean, eta Bizkaiko FAEAK baieztatu egiten du, berraztertze ebazpenaren aurkako erreklamazioa atzera botatzean. Eskumen horren baieztapena dago aipatutako ezezko ebazpenen oinarrian. Are gehiago: berariaz baieztatzen da eskumen hori 2011ko urtarrilaren 24an Bizkaiko Foru Aldundiak Arbitraje Batzorde honetan aurkeztutako alegazio-idazkian; alegazio horiek berretsi egiten ditu, beranduago, 2011ko maiatzaren 25eko idazkian.

Gauza bera esan daiteke autolikidazioak zuzentzeko eta ordaindutako kopuruak itzultzeko eskaeraren ukatzearen aurka jarritako berraztertze errekurtsa ukatzen duen EZAaren akordioari dagokionez. Horrela, 2009ko apirilaren 1ean aurkeztutakoaren arrazoiak helduta (Bizkaiko Foru Aldundiak aipatu du), nahiz eta 2007ko ekitaldiari dagokion, Ekonomia Itunaren konexio-puntuak kontuan hartuta, Estatuko Administrazioak atxikpenak ordainarazteko eskumena duela frogatzeko dira. Gauza bera esan daiteke 2009ko maiatzaren 22ko akordiorako (2008ko ekitaldikoa).

Adierazitako arrazoi berdinegatik, ez gaitu konbentzitzen Bizkaiko Foru Aldundiaren argudioak, zerga-likidazioak negatiboak badira edo zerga-itzultzerik badago, zerga-obligaziodunak egindako okerreko diru-sarrerak direla-eta aurkeztutako errekurtsak edo eskaerak ukatzeko administrazio-ebazpenak, Arbitraje Batzorderen Araudiaren 13.3. artikularen ondorioetarako, eskumengabetasun-deklarazioen antzekotzat joko direla esaten duenean. Bizkaiko Foru Aldundiak egindako baieztapenen artetik onar daitekeen bakarra da, likidazio negatiboa edo itzultze bat ukatzeko akordioa Administrazioaren eskumengabetasunak eragindakoa izatea. Horrela bada, likidazio negatiboaren edo itzultze bat ukatzeko akordioaren aurkako errekurtsa ukatzeko ebazpenak aurkatutako egintzaren egile den Administrazioaren eskumengabetasuna berresten du. Errekurtsa bat ukatzeko ebazpen batek ez du aurkatutako egintzaren izaera positiboa edo negatiboa eragiten, baizik eta berretsi egiten du; eta kontrakoa gertatzen da errekurtsa bat baiesten duen ebazpen baten kasuan, izan ere,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2009	R27/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikpenak. Eskumeneko Administrazioa

baiestearen arrazoiak hartzen dira kontuan (besteak beste, egintza eman zuen organoaren eskumena baieztatzen da, *ratio petendi* gisa).

Horrekin batera, itzultze-eskaera bati buruzko ebazpen baten izaera positiboa edo negatiboa, ebazpena ematen duen Administrazioaren eskumenari dagokionez, ez du ebazpenaren izaera bai esleak edo ez esleak erabakitzen, baizik eta bere funtsetan adierazitakoak: ebazpen ez esle batek esanahi positiboa edukiko du (hau da, aipatutako Administrazioaren eskumena baieztatuko du), baldin eta Administrazioak zinez aipatutako eskumena badu. Egoera hori gertatzen da kasu honetan, EZAAK berari ordaindutako atxikpenak itzultzeari uko egiten dioenean. Eta, alderantziz, ebazpen ez esleak esanahi negatiboa edukiko du, baldin eta bere oinarria Administrazioaren eskumengabetasuna bada. Horrela gertatzen zen BEZaren itzultzeak ukatzen zituzten ebazpenekin. Ebazpen horien ondorioz, eskumen-gatazka negatiboak planteatu zitzaizkion Arbitraje Batzorde honi, eta horietako batzuk EIABren 13.3. artikulua bitartez. Bi kasuetan itzultzea ukatzen duten ebazpenak eman badira ere, egintza eman zuen Administrazioaren eskumenaren aurkakoa da, eta, ondorioz, sor daitezkeen gatazkaren izaera positiboaren edo negatiboaren aurkakoa da.

Arbitraje Batzordearen Araudiaren arabera (13.3. artikulua), gatazka negatiboa denean bakarrik ematen zaie legitimazioa zerga-obligaziodunei. Hortaz, xedapen horrek eragozten du, argiro, obligaziodun horiek Arbitraje Batzordera zuzenean jo ahal izatea, xede dugun gatazka positiboaren eta antzekoen kasuan. Epaitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salak ezarri du partikularrek gatazkak planteatzeko duten legitimazio-eza, 2006ko abenduaren 12ko epaian (errek. 5031/2001), 2011ko otsailaren 3ko epaian (errek. 266/2009) eta 2011ko apirilaren 7ko epaian (errek. 629/2007).



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2009	R27/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikpenak. Eskumeneko Administrazioa

Gatazka positiboa denean, ez da nahikoa izaten Administrazio baten jardute-eza Arbitraje Batzordearen esku-hartzea oztopatzeko; baizik eta eskumenarekiko desadostasunak dituzten bi Administrazioek gatazka EIABren 13.1. artikulua bidetik ez aurkeztea lortu behar da. Horrela bada, eta kasu honetan horrela da, Arbitraje Batzordearen Araudiak ez du konponbiderik eskaintzen, eta *lege ferenda* egitea izango litzateke egokiena, zenbait kasuetan behintzat.

Hortaz, gatazka hau ez onartzea beste aukerarik ez dago. Ondorio horretara iritsita, ez dago eztabaida sakonkiago aztertze beharrik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

## **ERABAKI DU**

Gatazka hau ez onartzea.